

# Hiazinto Fernandorenaren hilberri txostena (1930-2017)

ZABALETA, Patxi  
Euskaltzain osoa eta idazlea

## JAXINTO F. SETIEN IKASTOLEN SUSTATZAILE GARRANTZITSUA

Jaxinto Fernandez Setien, euskaltzain urgazle zenari dagokion hilberri txostean, nik neure lekukotasuna eman nahiko nuke, mugatua baldin bada ere. Jaxinto Setienek ikastolen sustapenean garai zehatz batean eta arlo berezi batzuetan izan zuen garrantziaren lekukotasuna da nirea. Aldi berean, ordea, zenbait gogoeta eta azterketa xume azaldu nahiko nituzke garai hartako egoera eta arazoez.

Esan bezala, nire lekukotasuna mugatua da. Alde batetik, denborari dagokionez; Jaxinto Setienekin elkarlana 1969-1970eko ikasturtean zehar garatu bainuen nik. Beste alde batetik, gai edo gorabeheri dagokienez; hain zuzen ere, 1969-1970eko ikasturtean ikastolen mugimenduan gori-gorian zeuden arazo, eztabaida eta erabakiei atxikiko bainatzaie.

1969-1970eko ikasturtean Iruñeko Ikastolak handitze ikaragarria ezagutu zuen; halako eztanda bat bezalako, 150 ikasle edukitzetik 300 baino gehiagora igaro baitzen bat-batean. Sortutako arazoari aurre egiteko, eta beste erabaki batzuen artean, “liberatu” izendatua izan nintzen, garaiko hitza erabiltze aldera. Anartean sortu berria zen Arturo Kanpion Akademiako irakasle eta koordinatzailea bainintzen. Arturo Kanpion Iruñeko eta Nafarroako “gau-eskola” guztien bilgunea izateaz gainera, beste euskal ikastetxe eta ikastoletako irakasleak edo “andereñoak” alfabetatzeaz arduratzen zen. Hortik zetorren ikastolekiko zeukan harreman berezia.

Iruñeko ikastolaren aro berriak arazoz bete zirendien, baina aldi berean oparoa gertatu zen. Zuhurtasuna behar zen, baina baita ere ausardia. Tentuz jokatu beha-

rra zegoen, baina kikildu gabe eta agertzen ziren aukerak baliatuz.

Ikastolen birsorkuntzako arazo eta gabezia estrukturalak mota anitzekoak ziren eta gaindiezinak ematen zuten; diru arazoak, legeztapen arazoak, egitura arazoak, pedagogia arazoak eta abar. Halere arazorik zailenak premia larrikoak ziren; irakasle trebakuntza falta, terminologia bateraturik eza, testuliburu eta ikaskuntza materialaren gabezia eta abar eta abar. Zailtasun haietako batzuei ahalik eta erantzunik duinena emateko asmoz, jo genuen Nafarroatik laguntza bila Jaxinto Setienengana. Besteak beste, irakasle trebaketarako eta ikaskuntza materiala, testuliburuak eta bestelako bitartekoak eskuratzeko.

Ate joka Jaxintorengana eta Gordailu izeneko elkartera joan ginen. Zer zen Gordailu? Xede aunitz eta gehiegi zeukan egitura bat; horixe zen Gordailu. Ikastolen gabezia eta arazo guztiei erantzuteko asmoz edo ametsez sortutako elkarte, egitasmo, erakunde eta estruktura zen Gordailu. Dena aldi berean. Ikastetxeen ikastetxea zen; irakasleak trebatzen saiatzen zen, egitarauak antolatzen ere bai, testugintzan edo ikastolako liburuak eta materiala sortzen eta argitaratzen edo ikaskuntzako terminologia bateratzeaz arduratzen zen; baina baita ikasleentzat udako oporraldiak prestatzen ere. Hori guztia zen Jaxinto Setien, Arantxa Allur eta beste kide batzuek kudeatzen zuten Gordailu elkarte hura. Irudikapen bat egitekotan esan beharko genuke, gubernurik gabeko hezkuntza ministerioa izateko egitasmoa zela Gordailu. Asmo eta gauza gehiegi, alegia; mailua eta puxika; igitaia eta ontzia; orratza, titarea eta haria...

Gezurra badirudi ere, ausardia huraxe zen eta, hura besterik ez, garai berri hark, giro politiko eta egoera sozial ezberdin hark eta ikastolen bideragarritasunak orduan behar zutena. Ez balitz horrelako ausardiarik eta horrelako kemenik izan, agian ikastolen mugimenduak ez zituen gero lortu dituen garapen eta ondorio harriarriak ezagutuko. Ekimen eta lorpen miresgarrietan behar diren ameslari horietakoa izan zen Jaxinto Setien. Jaxintoren eta Gordailuren jokabidea ez zen ondoreko garai eta egoera normalizatuagoetara egokitu, baina erabakigarria gertatu zen 1960 eta 1970eko hamarkadetan gauzatutako ikastolen birsorrera esanguratsuan.

Ikastolen birsorrera hori behar bezala aztertzeke, eta 1969-1970eko ikasturteko ikastolen -eta neurri batean euskararen- garapena eta bilakaera aztertzerakoan, go-goan izan behar dira aurrekariak, eta ikastolen mugimenduan aurrekaria da 1920 eta 1930eko hamarkadetan sortutako ikastolen historia. Nafarroan zehazki bi ikastola sortu ziren 1931n; bat Iruñean eta bestea Lizarran. Iruñekoa Aita Damaso

Intza euskaltzainak eraiki eta abian jarri zuen, “Euskararen Adiskideak” izeneko elkartearen bitartez eta, besteak beste, Manuel Irujo eta Ignacio Baleztena bezalako jaun ospetsuen laguntzarekin. Hirurogei ikasle inguru zeukan Iruñeko lehen ikastola hark 1931n sortu zenean; eta ikasle kopuru berdintsua zuen 1936an, gerrateak eztanda egin eta itxi zutenean. Lizarrako ikastolak ere ikasle kopuru berdintsua zeukan sortu eta abian jarri eta handik sei urtera itxi zutenean<sup>1</sup>.

Zergatik ez ziren handitu gerrate aurreko ikastola haiek? Galdera ikaragarri horren erantzunak korapilatsuak dira, baina funts-funtseko erantzun sakona da ikastola haiek ez zirela eskola osoak izatera iritsi, eta beren xede edo helburu nagusia euskara erakustea izatetik ez zela igaro. Baina zergatik muga hori? Erantzunak berriro ere anitzak dira; baina besteak beste, euskara ez zegoelako normalizatuta; terminologia edo hiztegi bateraturik ez zegoelako eta ondorioz, ezta ere testulibururik edo ikasketa materialik. Baina sakon-sakonean, ez zegoelako oraindik euskaraz bizimodu berri eta urbanoak taxutzeko egitasmo irmo eta garaturik.

Berrogei urte geroago berpiztutako ikastolen mugimenduan, ordea, egitasmoak oso garbiak eta tinkoak ziren; euskara ikaskuntza eta jakintza maila guztietara eramateko asmoa eta erabakia zegoen; unibertsitatea barne. Horretarako Jaxinto Setienen ausardia eta Gordailuren kemena bezalakoak behar ziren. Gobernurik eta baliabiderik ez zegoen euskarazko irakaskuntza antolatzeke, baina arazo guztiei erantzungo zien pseudo-ministerio itxurako antolamendu orokorra eraikitzeke ahalegina egin behar zen. Horixe zen ikastolak eskola oso izatera eraman nahiak hastapen haietan eskatzen zuena.

Ikastolen birsorkuntzan aurrekariak gainera, gogoan izan behar dira 1960-1970eko hamarkadetako egoera eta aldaketa nagusiak; batik bat, egoera politiko-soziala, euskararen batasuna, euskal gizartearen, euskaldungoaren hiritartze edo urbanizatzea eta hizkuntzen irakaspenerako murgiltze eredu ezarketa.

Egoerari dagokionez, 1969-1970. urteetan Frankismoaren bukaera zantzuak nabariak ziren eta erregimen hura agortuta eta ahuldurik aurkitzen zen, behintzat sistema ideologikoa zen aldetik. Erregimenaren kezka bakarra indargune nagusiak mantentzea zen, bai militarrek nola ekonomikoak, baina urte gutxi lehenago debekatzen eta indarrez oztopatzen zituen ekimenak lagatzen eta uzten hasi zen. Adibidez, Iruñeko ikastolari dagokionez, 1966-1967ko ikasturtean, Salsipuedes izeneko karrikako bigarren solairuan “Eusko Bazterra” taldeak zabalduetako ikastola guardia zibilak itxi zuen, baina urtebete geroago Pozo Blanco karrikan guraso tal-

---

1 *Euskera* 1986, Damaso Intzari buruzko ikerketa. P. Zabaleta.

de batek bost ikaslerekin irekitakoa berriz, ez zuten itxi. Leitzan ere lehendabiziko irekitzeko ahalegina indarrez oztopatu zuten, baina bigarrena ez. Aipatutakoaren ondorio esanguratsua da ikastolak a-legaltasunean sortu zirela; hau da, legetik at, nahiz eta ez zuzenki legearen aurka. 1969-1970eko ikasturte hartan bertan Tafalla, Etxarri Aranatz, Otsagabia, Lekunberri eta abarretan sortu ziren; eta beti gurasoen ekimenez eta erantzukizunez.

Iruñeko ikastola Jorge Kortés Izal buru zuen guraso taldearen ekimenez sortua izan zen 1966-1967ko ikasturtean, lau ikaslerekin, Pozo Blanco kaleko bizi etxe batean. 1969-1970eko ikasturtean ez zegoen legeztatua eta arazo ekonomiko larriak zeuzkan, inolako eskola edo ikastetxe baten eraikuntza itxurarik gabe. Baiona etorbideko etxabe ilun eta leihorik gabeko batean zeuzkan bost gela eta beste hiru Irrintzi izena duen eraikuntzako 13. zoru edo pisuan; gaur egun Euskalerrria irratia eta lehenago *Berría* egunkaria egondako toki berean. Jolastokitza Baiona etorbidean orube bat eta Irrintzi dorrean terraza zeuzkaten<sup>2</sup>...

Halere ordea, 1969-1970eko ikasturtean ikasle kopurua ikaragarri handitu zen; eta ondorioz, Iruñeko Ikastola 300 ikaslelik gorako ikasle kopuruarekin aurkitu zen. Gela gehiago behar eta Construcciones Barkos izeneko eraikuntza enpresak utzi zion ikastolari beste etxabe bat Lakartxela karrikan eta hantxe antolatu ziren bi gela gehiago, beren komun eta biltegi ttipiarekin, jolastokia alboko parkea zutelarik. Beraz, Iruñeko ikastola hura baldintzarik gabeko hiru pusketatan zegoen.

Esan bezala, egitura arazoez gain, diru arazoak, egitura arazoak eta barne funtzionamenduko arazoak ikaragarri larriak ziren, baina horiei guztiei aurre egiteko, legeztatzea ere ezinbestekoa iruditzen zitzaigun. Legeztatze erronkari aurre egiteko Donostiako "Lizeo Santo Tomas" delakora jo genuen aholku eske, ikastetxe hark legezapena lortu berri zuela entzunda. Karlos Santamaria jauna zen Lizeo St. Tomaseko buruzagiak aholkatu zigun eskaria zuzendariaren edo irakasleen izenean izapidetzea, eta horregatik bete zen espedientea Mikaela Gastesi andereño zuzendariaren izenean.

Legezapen ahalegin hura egiteko asmatu zen "Uxue ikastola" izena; eta, nahiz egitura mailan edo beste arloetan hainbeste eta hainbeste gabezia eduki, legeko baimena eman egin zuten eta Iruñeko ikastola legeztatua gertatu zen. Baina orduan ikastola barneko eztabaidak areagotu egin ziren eta zuzendari andreak ikastetxearen jabetza hartu zuen, bere izenean legeztatu izanaz baliatuta, eta horrek

---

<sup>2</sup> I. Lopez andreak eta F. Erviti, A. Barandiaran eta J.L. Larraza jaunek Amigos del País delakoaz emandakoaren zuzenketa.

ekarri zuen Iruñeko ikastola hura bitan zatitzea 1970eko Aste Santuan.

Ikastolen barne eztabaida haietan itxuraz konfesionalismoa eta euskara batuaren aldeko eta kontrako jarrerak lehiatzen ziren, baina azpi-azpian ikastolen eredia eta batez ere jabetza eta kontrola zen jokoan zegoena. Iruñean, egoeraz baliatuta “Amigos del País” elkarteak sartu zen tartean bi apaizen laguntza eta gidaritzarekin –Anjel Hermoso de Mendoza eta Martzelino Garde, hain zuzen ere-, nahiz eta inoiz ez ardurarik hartu, ez jabetu aurretik eta ez ondoren. Euskal Herriko beste toki batzuetan berriz, legeztapen eskaria elizaren izenean egin zela baliatuta, elizak eskuratu zuen ikastolen jabetza. Nafarroan iskanbila hedabideetara iritsi zen, eta *Principe de Viana* aldizkariko euskarazko gehigarriaren zuzendaritza kendu zioten Pedro Diez de Ultzurrun jaunari. Zuzendaritza hura Martzelino Garde apaizari eman zioten eta porrotera eraman zuen.

Iruñeko ikastolaren zatiketa gauzatzean, guraso eta ikasleen %90ek lehengo ikastola utzi eta San Fermin izeneko ikastola sortu zuten 1970eko Aste Santuan bertan. Horretarako Verbo Divino izeneko kongregazioari Zizurko fraide-etxeko sotoa alokatu zitzaion. Beste guraso eta ikasleek aldiz, ikastola zaharrean jarraitu zuten hiru hilabetez, baino laster joan ziren eta Paz de Ziganda izeneko ikastola sortu, Iruñeko ikastolarentzat dohaintza utzi zuen Iruñeko emakume baten deiturara ipiniz.

Beraz, hausturak haustura eta arazoak arazo, ikastolen mugimenduak aurrera egin zuen Nafarroan nabarmenki 1969-1970eko ikasturte hartan eta berdintsu gertatu zen Euskal Herriko beste hainbat tokitan, eta ikastolen mugimenduak lortutako garrantziak, alde batetik, indar politiko eta sozialen gutizia eta grinak biztu zituen, baina, beste aldetik, itzulezina bihurtu zuen mugimendua. Gainera, ikastolen beste ondorio garrantzitsu eta ukalezina hezkuntza ofizialean eragindakoa da.

Baina, lehen aipatu bezala, eskola osoa egiteko baldintza bat euskararen beraren egokitzapena zen; hain zuzen ere, euskara batuaren premia eta baldintza. Urtebete lehenago, 1968an hain zuzen ere, Arantzazun irudia eman zitzaion hizkuntzaren batasun egitasmoari, baina gizartean eztabaida gori-gorian zegoen eta ikastolak izan ziren, zalantzarik gabe, apustu horren plazarik esanguratsuenetako bat, agian literaturgintza eta hedabide batzuekin batera. Ikastolen etorkizunak ezinbestekoa zuen euskararen batasuna eta batasun hori ikastoletan jokatu zen, hein handi batean.

Jaxinto Setien eta Gordailu bezalako batasunaren aldeko jarrera tinko eta irmoa erabakigarria gertatu zen. Ezin da ahaztu arduradun politiko batzuen zurikeria eta alde bietara jokatu nahia. Batasunaren euskal bidea soilik eta bakarrik oinarritzen da herritarrek borondate hutsez Euskaltzaindiaren erabakiei aitortzen dieten atxikimendu eta menean. Hemen ez da egon aginte edo aldizkari ofizialik hizkuntzaren estandarizazioa ezartzeko. Hemen, gaur egun oraindik, gure hizkuntzaren egoera zapalkuntzako, minorizatu eta injustua da; adibidez, lanbide publikoetara sartu ahal izateko; hemen inor ez daiteke ertzain, erizain edo administrazioko bulegari izan erdaraz jakin gabe, baina euskaraz jakin gabe bai.

1960/1970eko bi hamarkada haietan batasunaren eztabaida soziala eta politikoa garatu zen –akademikoa baino askoz gehiago–; eta batasunaren aurkako ikurra Elbira Zipitria andereñoaren izenarekin eta irudiarekin nahasi nahi izan zuten.

Elbira Zipitria “etxeko ikastolen” sustatzailea izan zen, baina aitortu behar da berarekin tratatutako irakasle asko izan zirela ondoreko ikastolen irakasleria hornitu zutenak. Adibidez, 1969-1970eko ikasturtean, Jaxinto Setien eta Gordailuko eraginak zirauen ikastetxeetan oraindik, eta Elbira Zipitriaren terminologia eta metodoak erabiltzen ziren biderketa erakusteko. Biderketari “batuketa laburra” deitzen zitzaion eta biderketako taularen terminologia genitibo lokatiboaren bitartez adierazten zen. “Lau bider bost berdin hoge” edo “zazpi bider sei berdin berrogeita bi” beharrean, “lauko bost berdin hoge” edo “zazpiko sei berdin berrogeita bi”. Adibidez, terminologia honekin egin zituzten lehen biderketa ikaspenak gaur egun euskaltzain oso den Lourdes Oñederra andreak eta euskaltzain urgazle diren Iñaki Irazabalbeitia eta Mikel Bujanda jaunek<sup>3</sup>.

Izan ere, Elbira Zipitria aipatzen da gerraurreko eta ondoreko ikastolen zubigintza egindakoa bezala. Baina lotura hura ez zen orokorra gertatu. Esate baterako, Ensunza jaunak bere azterketan aipatzen dituen Ixaka L. Mendizabal edo Luis Egia eta beste aurrekariak ez ziren eztabaidagai. Errepikatu beharrekoa da gerraurreko ikastolek ez zutela zoritxarrez garapen osoa lortu. Eta, aldiz, eta zorionez, 1960 eta 1970eko hamarkadetan sortutako ikastolek, berriz, bai. Beraz, zubi-lana neurri horretan zehaztu behar da.

Elbira Zipitriaren ikastola ereduak ez zuen jarraipen zuzenik eduki, baldin eta bertan tratatutako irakasleen bitartez ez bada. Orixe ikastolan bildu ziren aipatu andereño hark sortutakoak, baina ikastetxe hura gaur egun publikatu eta Gipuzkoako sare publikoan txertaturik dago. Batasunaren inguruko lehia ikastoletatik at

---

<sup>3</sup> Elbira Zipitriarekin lan egindako Manoli Alemanen lekukotza.

gelditu zen pixkanaka-pixkanaka eta aurkako jarrerak hutsaltzen joan dira, komunikabideren batean eta umoreko arialdi txarretan ez bada. Paz de Ziganda ikastolarekin gertatu bezala, beste ikastola guztietan ere batasunaren aldeko urratsa eman da, eta urrats horrek ahalbidetu du aldi berean ikastolen garapena.

Euskal eskolen ugaritzeak normalizazioa eskatzen zuen eta helburu hori estandarizazioaren bidetik gainditu beharra zegoen. Ikastoletan ere nazioartean erabilitako terminologia eta ereduak txertatu behar ziren. Euskaltzaindiak 1975ean onartutako *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia* urrats garrantzitsua izan zen bide honetan. Lan onuragarri horren bitartez atea ireki zitzaion egin beharreko bideari, eta oinarriak jarri ziren ondoren zehaztu eta jarraitu beharreko lanei. Euskaltzaindiaren hiztegi horretan bazterturik gelditzen da betiko “batuketa laburra” zelakoaren taula eta bere gisako beste esamoldeak.

*Zortzi urte arteko ikastola hiztegia* delakoan euskalgintzako hogeita hamar pertsona esanguratsuk hartu zuten parte; horien artean zegoen Jaxinto F. Setien, euskal kulturako beste pertsona garrantzitsu askorekin batera, adibidez Jose Luis Alvarez, Karlos Santamaria, Pierre Lafitte eta abar. Esan dezakegu 1975ean ikastola asko legezaturik zeudela eta ikasle kopurua asko handitu zela. Garai hartan eraikuntza berriak, egitura egokiak, eta diru iturri oparoak ezezik, egitarau, testuliburu eta, batez ere, irakasle eta profesionalen trebakuntza unibertsitate mailara eramatea zen kezka nagusia.

Gordailu eta Jaxinto F. Setiennen protagonismoa hutsaltzen joan zen urteak igaro ahala eta egoera berriak eskatzen zituen baldintzekin. 1975etik aurrera beren zereginak irakasle elkartearen zerbitzura eta liburugintzara zuzendu zituzten eta horretan jarraitu zuten beste urte batzuetan. Matematikaren arloan aipatzekoak dira Feli Etxebarriaren ekarpenak eta bi liburuak. Liburugintza oso anitza izan zen eta ikastolen aurrekari esanguratsua bezala gelditu da. Nik neuk adibidez, esandako elkarlanaren ondorioz, Julian Gaiarreren euskarazko biografia ttipi bat argitaratu nuen Gordailun.

Zientzia eta matematikaren arloan Karlos Santamariak bere prestigio eta onarpen zabalarekin bideak markatu zituen *Elhuyar* aldizkarian 1975, 1976 eta 1977an argitaratutako lan eta proposamenen bitartez.

Ondoren Elhuyar, UEU eta UZEI taldeen lanak ekarpen garrantzitsu bilakatu ziren. Esan liteke Mikel Zalbideren gidaritzapean UZEIk argitaratutako *Matematika. Hiztegia, Hizkera eta Irakurbideak* normalizazio maila modu duinean ezarri zuela be-

hin betiko. Esandakoaz gainera, Jose Ramon Etxebarria, Martxel Ensunza eta abarrek osatzen duten EHUko taldeak egindako ekarpenek hartu dute neurri handi batean lekukoa, 2008an argitaratutako eskuliburua azken emaitza esanguratsua delarik.

Aipamen zehatza egin nahiko nioke, ordea, Martxel Ensunza jaunari bere tesi eta ondoreko lanak labur-laburrean arakatu. *Ikur eta Zeinu bidezko adierazpen fisiko-matematikoaren irakurbidea* izenekoa da bere ekarpen esanguratsua. Labur-labur bada ere, Ensunzak egindako bi aipamenei ohar bana egingo diet hemen. Lehenengo aipamena da Ensunzak ematen dituen aurrekarietan falta denari buruz; Ensunzak aipatzen eta aztertzen ditu banaka-banaka bost aurrekari garrantzitsu: A) Ixaka Lopez Mendizabalek bere Tolosako inprimategian 1913an argitaratutako *Ume koxkorrentzat euskaraz egindako Zenbakiztiya edo Aritmetika*. B) 1932an Euzko Ikastola Batzak argitaraturiko *Zenbakiztija*; gainera liburu honek izan zuen bigarren mailako argitalpena ere: *Zenbakiztija II Mallea*. C) 1933an Madril-Bartzelonan, La Instrucción Popular-ek argitaraturiko *Zenbakizti Lengaien Ikastia*. D) 1935ean Aita Gabirel Jauregi Uribarrenek argitaratutako *Pisia eta Kimia* liburu mardul eta landua.. E) 1972an Luis Egiak ateratako *Neurritzia*.

Meritu ikaragarria aitortu behar zaio jatorriz Lodosa (Nafarroa) delako herrian jatorria zeukan Ixaka Lopez Mendizabal, Tolosako inprimatzaileari; deitura askotan asmatu zuen, nahiz eta biderketari “tolesketa” edo “tolestea” jarri zion lehen deituratzat. Bide hori jarraitu zuten baita ere Euzko Ikastola Batza elkarteak eta garaiko besteek egindako lanek, garbizalekeriaren garaiak baitziren orduko haiek. Luis Egiaren ahalegina, berriz, inolako ondoriorik gabea izan zen.

Martxel Ensunzak aztertutako aurrekari esanguratsuez gainera, ordea, Elbira Zipitriak irudikatzen zuen mugimendua zegoen 1960, 1970eko bi hamarkadetan. Lehendabiziko ikastola haietan erabilitako “batuketa laburra, puxtarri, multzo...” horien guztien teoria zen euskara batuak ekarritakoarekin lehiatzen zena. Ensunzak berak aitortzen duen bezala, Gordailu eta Iker taldeak ez ezik ikastolen gehien-go osoak hizkuntzaren batasunari egin zion men eta horrek zeharo argitu zuen gizartearen joera. Euskal Herriak ez du eduki hizkuntzaren batasuna ezarri zezakeen agintaritarik; ezta ere prestigiozko tradizio literariorik Italian Danterekin gertatu bezala; hemen hizkuntzaren batasuna edo estandarizatzea iritzi eta erabaki batzuen ondorioz ezarri da, eta lanbide horretan erabakigarriak gertatu dira, besteak beste, ikastolen garapenean, hastapenetan baino gehiago, hartutako joerak.

Ensunzak aipatzen duen beste aurrekari bat, Gorka Palazio irakaslearen tesitik



hartzen du; eta da Bizkaiko Dima herriko errotariak zenbakiak adierazteko erabiltzen zituen ikur edo zeinu berezien deskribapena. Bitxia izanik ere aipamen hori, bada-go Euskal Herriko historia etnografikoan beste adibide guztiz harrigarri bat; zera, alegia, mus jokoan zenbatzeko modua eta *taia*<sup>4</sup> delakoaren izaera eta erabilera.

*Taiaren* bitartez eramaten zen kontabilitate oso bat erosle eta saltzaileen artean, dendari edo tratulari eta baserritar edo etxeoandreen artean alegia, eta horren kontaketa bikoiztuak –aktibo eta pasiboak-, eramaten zuen bosteko multzoari hamarrekoa deitzera mus jokoan mundu guztian zehar gertatzen den bezala. Zergatik mundu guztian zabaldu den euskal izen batek –*hamarreko*– bost tantoko kopurua esan nahi ote du? Erantzuna *taiaren* historia etnografikoan dago<sup>5</sup>.

Jaxinto F. Setienen gogorapenarekin bukatzearren aipatuko dut ikastolek asko zor diotela garai batean behar zen erantzuna emateko ausardia izan zuelako Gordailuko beste kideekin batera, nahiz eta erantzun horrek ez zuen beste garai batzuetarako balio. Horregatik Lazkaoko apaizetxean ezagututako apaiz gazteari asko zor dio ikastolen mugimenduak, asko zor dion bezala hizkuntzaren batasunak. Nahiz “lemazain” izendatzea agian gehiegizkoa den, laguntzaile kementsu eta adoretzu eta beste inor ausartzen ez zena egiteko beti prest zegoena izan zela aitortzea zor zaio Jaxinto F. Setieni.

Bere garaia joan zenean, 1980ko hamarkadaren erditik aurrera, beste lan batzuetan jardun zuen, esate baterako, erlauntzaren munduan bere adore eta kemen kutsakorra isuri zuelarik.

---

4 “Taia ostu dute” (*Absurdoko Kontuak*, Pamiela, 2013. Patxi Zabaleta).

5 Taia erditik bere hariaren arabera arraildutako makila bat izaten zen. Gehienetan elorri makila. Nik ikusi eta ezagutu izan ditut taia XX mendeko hirugarren herenean; Goizuetako Zeferino Berroetaren dendan eta Arantzako Saroberen dendan; eta entzuna daukat lehenago Leitzako Zortziko Zaharraren dendan ere erabili ohi zirela.